araba álava
foru aldundia diputación foral

kirolaraba

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

“Dinamita” Sánchezen K-1 munduko titulua defendatzeko borroka Mendizorrotzako pabiloian egingo da

Aymeric Lazizi frantziarraren aurka neurtuko ditu indarrak WAKO-PRO munduko txapela, 69,1 kilotik beherako kategoriakoa, atxikitzeko

Arabako eta Euskadiko kickboxingeko etorkizun handiko kirolariak eta arlo profesionaleko kirolari entzutetsuenak bilduko dira

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 5a Datorren **larunbatean, azaroaren 14an, Mendizorrotzako** udal-kiroldegian borrokaldi ugari izango dira, eta **Sergio “Dinamita” Sánchezek** bere **munduko titulua** defendatuko du Aymeric Lazizi frantziarraren aurka.

Ekitaldia gaur goizean aurkeztu dute Arabako Foru Aldundiko prentsa-aretoan, eta bertan izan dira **Ana López de Uralde Kirol zinegotzia, Ana del Val Kiroleko foru-diputatua**, Sergio “Dinamita” Sánchez, Maialen Gallardo borrokalaria eta Raúl Marcos, ekimenaren antolatu duen taldearen arduradun gisa.

*“**Gasteiz** gertakari handien agertoki gisa **sendotzeko** eta **eliteko kickboxinga** gasteiztarrengana hurbiltzeko aukera bikaina izango da gau hori. Gainera, “Dinamita” Sánchez zuzenean animatzeko aukera emango digu, **munduko txapeldun-titulua defenda** dezan. Programa horrek Arabako kickboxingaren une ona eta diziplina honek gora egitea lortzen ari diren kluben, entrenatzaileen eta kirolarien lana islatzen ditu”*, azaldu du **Ana López de Uraldek**.

Kiroleko foru-diputatu **Ana del Valek** nabarmendu duenez, *“Araban munduko tituluaren defentsa hartzea **aukera bikaina da maila goreneko kirolaz gozatzeko** eta gure kirolarien lana aitortzeko. Egitasmoak Arabako eta Euskadiko kickboxingeko izen garrantzitsuak eta etorkizun handiko gazteak bilduko ditu, lurraldean dugun **talentuari ikusgarritasuna** emanez. Sergio Sánchezek bere jendearen babesa sentitzea nahi dugu hain hitzordu garrantzitsuan, eta publikoak **Mendizorrotzan** kirol-gau bikainaz gozatzea”*.

Nazioarteko ibilbide luzea duten bi kirolari izango dira aurrez aurre eta Sánchezek bere maila erakusteko aukera izango du. Kirolari arabarrak munduko bost titulu pilatu ditu bere palmaresean, eta Mendizorrotzan borrokatuko du **69,1 kilogramo baino gutxiagoko kategorian K-1 mailako WAKO-PRO munduko txapela** defendatzeko.

Aymeric Lazizi frantziarra (27 urte eta 1,92 metro) izango du aurkari. Lehen mailako lehiakidea da, eta esperientzia handia du Japoniako K-1 World Max zirkuitu ospetsuan ere. Gainera, WAKO PROko mundu mailako behin-behineko txapelduna ere izan da. Guztira 24 borrokaldi egin ditu ibilbide profesionaleko lau urteetan, eta 22 garaipen lortu ditu.

Carmen Gómez Preciado – mcgomeza@araba.eus - 945 18 87 41 – araba.eus

Munduko txapela lortzeko borroka hori izango da azaroaren 14an Mendizorrotzan programatutako gau erakargarri horretako borrokaldi nagusia.

Baina, 18:00etatik aurrera, amateurren arteko borrokaldiak ere izango dira, eta euskal kickboxingaren promesa nabarmenetako batzuk izango dira ringean, **hala nola David Galica, Laura Villaba, Saioa Campo, Ibon Lantz, Bojj Nayem, Aziz es Salhi eta Mario Martínez**.

20:00etatik aurrera, berriz, profesionalak izango dira protagonista, **Flavius Chiaburu, Maialen Gallardo, Pablo Saracibar, Alex Mena eta Unai Bergaz** espezialista ezagunekin, besteak beste.

Carmen Gómez Preciado – mcgomeza@araba.eus - 945 18 87 41 – araba.eus